BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

208. zk. 2026, urriak 29. Osteguna 1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuaren 537/2026 FORU AGINDUA, urriaren 16koa, zeinaren bidez bidaiariak eta salgaiak errepidez garraiatzeko diren zenbait ibilgailuren gidarien hasierako kualifikazioa egiaztatzen duen lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko proben deialdia egiten den.

Apirilaren 20ko 284/2021 Errege Dekretuak, errepideko garraiorako zenbait ibilgailuren gidarien hasierako kualifikazioa eta etengabeko prestakuntza arautzen dituenak, 17. artikuluan ezartzen du hasierako kualifikaziorako azterketak gutxienez urtean sei aldiz deitu beharko direla eta deialdi hori, gutxienez, lehen ariketa egin baino hilabete lehenago argitaratu behar dela. Hori dela eta, 2027. urtean egingo diren proben egutegia finkatu behar da.

Horren ondorioz, agiri hau sinatzen duenak ondoren azaltzen den proposamena egiten dizu, batetik, kontuan harturik zer aurreikusten duen Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikuluak, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 6eko 169/2023 Foru Dekretua aplikaturik, eta bestetik, aintzat harturik zer xedatzen duen Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoa onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 18ko 84/2024 Foru Dekretuaren 4 f) artikulua.

FORU-AGINDUA

Lehenengoa.— *Azterketa-deialdiak*

Hasierako kualifikazioa egiaztatzen duen lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko probak egiteko 2027. urteko deialdiak onartzea. Ziurtagiri hori beharrezkoa da Gidarien Araudi Orokorrean zehaztutako C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea eskatzen duten ibilgailuak bide publikoetan gidatzeko. Hona hemen proben egutegia:

— Lehenengo deialdia: 2027ko urtarrilaren 8an

— Bigarren deialdia: 2027ko martxoaren 5ean

— Hirugarren deialdia: 2027ko apirilaren 30ean

— Laugarren deialdia: 2027ko ekainaren 11n

— Bosgarren deialdia: 2027ko irailaren 24an

— Seigarren deialdia: 2027ko azaroaren 5ean

Eskaera-orriak aurkezteko epea:

— Urtarrila: 2026ko azaroaren 20tik abenduaren 11ra.

— Martxoa: 2027ko urtarrilaren 22tik otsailaren 11ra.

— Apirila: 2027ko martxoaren 16tik apirilaren 8ra.

— Ekaina: 2027ko apirilaren 30etik maiatzaren 20ra.

— Iraila: 2027ko abuztuaren 12tik irailaren 2ra

— Azaroa: 2027ko irailaren 22tik urriaren 14ra.

Bigarrena.— *Azterketetara aurkezteko eskubidea*

Hasierako kualifikazioa lortu nahi duten izangaiek eskaera aurkeztu eta dagokion tasa ordaindu beharko dute deialdi bakoitzean horretarako ezarritako epearen barruan.

eek: BAO-2026a208-(I-1211)

Azterketan ez da onartuko prestakuntza-ikastaroa eskaerak aurkezteko ezarritako epearen azken eguna baino beranduago amaitzen duen izangairik, ezta tasa epe horretatik kanpo ordaintzen duenik ere, deialdi bakoitzari dagokionez.

Hirugarrena.— *Argitaratzea*

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Foru-agindu hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunek foru-agindu horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, foru-agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera, edo, bestela, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluan ezartzen denarekin bat.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ezingo da jarri berariazko ebazpena eman arte edo jarritako berraztertzeko errekurtsoaren usteko ezespena gertatu arte.

Dena den, foru-diputatu andreak ebatziko du.

Aurreko proposamena onartu da eta, horren ondorioz, bertan proposatutakoaren arabera ebatzi da.

Bilbon, 2026ko urriaren 16an.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa
Sustatzeko foru diputatua,
SONIA PÉREZ EZQUERRA

eek: BAO-2026a208-(I-1211)